# 5.-KANALAK:

Gure produktua saltzeko orduan, hainbat kanal ezberdin erabiliko ditugu. Gure produktuen salmenta burutzeko metodo eta modu ezberdinen bidez, gure produktua munduko bazter guztietara iristea nahi genuke. Horretarako, internet iruditzen zaigu baliagarriena zabalkuntza-prozesu horretan. Horrela, horrelako mugikor bat nahi duen edonork izango du eskuragarri sarean. Gainera, garai hauetan sareak eta internetek hartu dute garai bateko merkatu eta azoken tokia. Internet mundu mailako merkatu erraldoia bihurtu da dagoeneko.

Horretarako webgune propioa sortu dugu. Bertan, gure bezeroek mugikor berriaren inguruko informazio zehatzak ageri dira, baita argazki, bideoa eta beste hainbat deskripzio ere. Honez gain, gure webgunean mugikorrak erosi ahalko dira munduko txoko guztietatik. Hori bai, herrialdearen arabera, produktua bertara iristeko beharrezkoak diren garraioen balioa txertatu beharko zaio mugikorraren berezko prezioari. Produktuek 3-4 egun beharko dituzte helmugara iristeko.

Mugikorrez gain, hauentzako fundak ere salgai daude, kolore eta diseinu ezberdinetakoak denak.

Gure webgunea 24orduz dago erabilgarri eta interneten 3T soilik idatziz gero, aurki dezakegu. Itxura hau du:

